



**ARARTEKOAREN AGERRALDIA**  
**EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAN:**  
**2009. URTEKO TXOSTENA**

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 17a

Legebiltzarreko lehendakari andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egun on.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2009. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Izapide honetan, pozik betetzen dut, Legebiltzarraren goi ordezkari naizenez, Ararteko erakundeak 2009an burutu dituen jarduerak ganbera honi jakinarazteko betebeharra.

Pozik agertzen naiz zuen aurrean, gainera, ganbera honek bigarren aldiz ararteko aukeratu izanak eman didan erantzukizunarekin eta, beraz, indarrak eta konpromisoak berrituta, bigarren agintaldi honetan Arartekoak 2010-2014 aldirako, finkatu dituen helburu programatikoetan islatzen denez. Helburuok orain hilabete gutxi eman nituen jakitera.

Joan den maiatzaren 26an Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean agertu nintzen, txosten honexen berri emateko. Nire mintzaldian, aurreko urteetan erabilitako eskemari jarraiki, 2009an herritarrek egin dizkiguten kexen azterketa kuantitatiboa egin nuen, laburki azaldu nituen erakunde honek burututako jarduerak, txosten berezi edo monografikoak ezagutarazi nituen, baita gomendio orokorrak ere, eta agerian jarri nuen administrazioaren organo jakin batzuek Arartekoari laguntzeko betebeharra ez betetzeari eusten diotela.

Batzordeari azaldu nizkion gaietatik, honako hauek aipatu nahi ditut berriro:

- Jasotako kexei dagokienez, Ararteko erakundearen jarduera kopuruz hazi egin da 2009an, %13 inguru hazi ere. Horrek esan nahi du herritarrek gure lana hobeto ezagutzen dutela eta horretan konfiantza handiagoa dutela.
- Arartekoaren egituran eta funtzionamenduan aldaketa nabarmena egiten hasi gara. Horrela, Arartekoaren Araudi berria onartu dugu, joan den martxoan argitaratutakoa, bi helbururekin: erakundea berriztatzea eta eraginkortasun handiagoa izatea.
- Txosten berezi edo monografiko gehiago egin dira, ahalik eta ondoen burutzeko politika publikoak ebaluatzeko gure lana. Era berean, aurreko urteetan, liburu asko argitaratu gabe geratu ziren, erakunde-irudi berri



eraginkorragoa izan arte eta argitalpenen euskarriak arrazionalizatu eta optimizatu arte. Orain horiek denak argitara eman ditugu, paperaren erabilera dezente gutxituz.

- I. Jakina denez, Ararteko erakundearen helburu nagusia pertsonen eskubideak babestea da, Euskadiko administrazioen jarduera eta politika publikoei dagokienez. Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak, otsailaren 27koak, honako hau ezartzen du 32. artikuluan: Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean, gure autonomia erkidegoan eskubideen babesa zer egoeratan dagoen baloratu behar dela. Balorazio hori egiteko, oso labur aipatuko ditut gure lanaren ondoriozko gai batzuk, izan ere, herritarrentzat garrantzi handia hartzen duten hiru eskubide sozialekin lotuta daude: hezkuntza-eskubidearekin, osasun-eskubidearekin eta etxebizitza izateko eskubidearekin. Gogoetaren bat egingo dut osotasun fisiko eta moralerako eskubideari buruz, tortura eta tratu txarrak prebenitzearekin lotuta; eta gero kolektiboentzako politika publiko sektorialen gainean azpimarratu behar ditugun Arartekoaren lanaren gairik deigarrienak aipatuko ditut. Edonola ere, aurkezpen hau gehiegi ez luzatzeko, urteko txostenaren eduki zabal eta trinkoari lotzen natzaio, batez ere ondorioei buruzko bederatzigarren atalari.

Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesa zein egoeratan dagoen baloratzeko orduan, Arartekoari funtsezkoa iruditzen zaio pertsonaren duintasuna, hau da, norberaren autodeterminazioa, norberaren askatasuna eta nork bere bizitza bere ezaugarrien eta borondatearen arabera egin eta gara dezan errespetatzea. Funtsezko eskubide hori da oinarrizko eskubide guztien euskarri nagusia. Hala ere, duintasunerako eskubidea, baita eskubideen sistema osatzen duten gainontzeko eskubide guztiak ere, erabat eta ezinbestean moztuta geratzen dira, baldin eta bizitzarako eskubidea errespetatu eta bermatzen ez bada.

Horregatik, berriz ere, ETA talde terroristak funtsezko eskubide horiek hautsi dituela salatu behar dugu tinko. Tamalez, 2009. urtean, ETAk heriotzak eragin dituen atentatuak burutu ditu berriro, Eduardo Antonio Puelles García, Carlos Sáez de Tejada García eta Diego Salva Lezaun hil baititu. Argi esango dizuet, pertsona eta ararteko naizen aldetik, beste ezer baino nahiago nuke barrua gogor astintzen digun errealitate latz horren aipamen mingarririk egin gabe agertu osoko bilkura honetan. Oraindik ere gure elkartasuna eta dolumina helarazi behar dizkiegu biktima horien senideei eta lagunei, haien sufrimendura hurbildu eta biktimak gogoan izan.



Gaia aldatuta, baina bizitzarako eskubidearekin lotuta, min eta sumindura handiz adierazi behar dugu etenik gabeko indarkeria sexistak beste bi biktima eragin dituela 2009an, Gernikan eta Irunen, non erailak izan ziren Izaskun Jiménez eta Yasmin Rodríguez.

Aurre egin behar diogu gizaki batek beste batekin erabiltzen duen indarkeria orori. Horrela, ahalegin handiagoa egin behar da prebentzioan, gizarte-sentsibilizazioan eta gizakiaren duintasuna, askatasuna eta berdintasuna errespetatzeari buruzko balioak lantzean.

II. Eskubideen egoerari buruzko balorazioarekin hasi aurretik hiru gai aipatu nahi ditut:

- a) Aurreko urteetan bezalaxe, iaz jaso eta bideratu genituen kexetatik gehienak eskubide sozialak ustez urratzearekin lotuta zeuden. Oraingo krisialdi ekonomikoak eta azken hilabeteotan hartzen ari diren doikuntza-neurriek gai hori nabarmentzera behartzen gaituzte, izan ere, begi-bistakoa da neurri horiek egoerarik txarrean dauden pertsonen eskubideen kaltetan hartzeko arriskua dagoela, eta, aldi berean, pertsona horiexek direla beren eskubideak babesteko eta jendaurrean entzunak izateko zailtasunik handienak dituztenak; horrek denak gehitu egiten du pertsona horien ahultasun arriskua. Erakunde honek erne begiratuko die datozen hilabeteetako gertaerei eta Euskadin eskubide sozialek duten bilakaerari.
- b) Oraindik ere azpimarratu behar dugu administrazio egokia izateko eskubideak –eta are gehiago krisialdi ekonomikoko garaian– berekin dakarrela herritarrentzako jarduerak ondo eta modu eraginkorrean egiteko betebeharra; horregatik, gero eta gehiagotan sartzen dugu eskubide hori gure kontrol jardueran zeharkako ardatz gisa, eta administrazioetan jarduera egokiak eta zerbitzu-kartak sustatzen ditugu, baita ezartzen diren politika publikoen ebaluazio-sistemak ere.
- c) Arartekoak ikuskatzen dituen herritarren eskubideen artean sartzen ari gara, pixkanaka, informazio-teknologiekin zerikusia dutenak –eskubide horietako batzuk onartuta daude ekainaren 22ko 11/2007 Legean, Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Sarbide Elektronikoa Izateari buruzkoan–. Izan ere, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia (IKT), gure ustez, eskubide sozialak bermatzeko eta gauzatzeko tresnak dira eta, halako teknologia eskura ez izateak, aldiz, egoerarik txarrean dauden pertsonen gizarte bazterketa eragin dezakete.

\* \* \* \*



Hezkuntzarako eskubidea agertzen da herritarrentzako eskubide garrantzitsuenetako bat bezala, seme-alabak dituzten familia-unitate asko baitaude. Iazko txostenean adierazi genuenez, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua argitaratu izanari esker (horrek arautzen du haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako itunpeko ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura) eta 2008ko apirilaren 24koa Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen 12/04-2008 Akordioari esker (horren bidez, Haurreskolak Partzuergoan haurrak onartzeko araudia eta irizpideak onesten dira) esan dezakegu ikasleak onartzeko prozesua irizpide komunak arabera gauzatzen ari dela. Beraz, gure gomendioa bete dela nabarmendu behar dugu.

Neurri horren egokitasuna dela eta, irizpide komunak erabili dira 2009-2010 ikasturterako ikasleak onartzerakoan -bai ikastetxe publikoetan, bai itunpeko ikastetxe pribatuetan, bai Haurreskolak partzuergoko eskoletan-.

Adingabe adoptatuak eskolaratzeak dakartzan arazoei dagokienez, egiazko adina eta heldutasuna direla medio, hezkuntza-administrazioa neurri egokiak hartzen ari da egoera horiei erantzuteko.

Bekak eta laguntzak emateari buruz egin diren kexek agerian utzi dute, zenbait kasutan, ebazpena atzeratu egiten dela eta, batez ere, emandako laguntzen ordainketa atzeratzen dela.

Beste alde batetik, PROA programa dagoela nabarmendu behar da. Laguntza eta errefortzuko programa hori institutuetan aurrera eramaten da, DBHko ikasleen artean kopuru handi samar batek hezkuntzazko desabantaila -inguruneari lotua- eta ikasteko zailtasun orokorrak dituenen. Finantza arazoak konpondu behar dira, programa hori eraginkorra izan dadin.

Zoritxarrez, ikastetxeetan oraindik ere badira ikasleen arteko *bullying* edo jazarpen kasuak. Arazoa oso konplexua da eta, sistema judizialera bidera daitezkeen oso kasu larriak kenduta, hezkuntza-sistemak berak eman behar dio erantzun egokia.

\* \* \* \*

Osasunerako eskubideari buruz, aurrerapen handiak egin dira 2009. urtean informazio pertsonalatuaren arloan, erabiltzaileei laguntza emateko prozesuan aurrez ikusten den itxaronaldiari dagokionez. Hala eta guztiz ere, osasun zerbitzuen arteko koordinazio falta gertatu da zenbaitetan. Horrela, errepikatu egiten dira ebakuntza kirurgiko baten zain dauden gaixoen kexak, ebakuntza egin aurretik beharrezko probak egin arren, proba horiek iraungi direlako, oraindik ebakuntza egiteko eguna zehaztu gabe dagoela.



Halaber, kegak aurkeztu dira historia klinikoa eskuratzearen gainean, ez dutelako uste posta arruntez bidaltzeak aski berme duenik.

Pertsona batzuek kekatzen dira Osakidetzak medikua aldatu dielako, haien iritzia kontuan izan gabe.

Oraindik jasotzen dira kegak zentro pribatuetan jasotako laguntza medikoen gastuak itzultzea ukatzen delako.

Herritarrek osasun sistema publikoa erabiltzeko esparrua zerbitzuen kartan dago zehazturik; hor, prestazioen oinarritzko edukia ezartzen da. Zenbaitetan, baina, berdin tratatu beharko liratekeen egoera batzuei desberdin erantzuten zaie. Esate baterako, ez dago irizpide homogeneorik entzumen urritua duten pertsonen kokleako inplanteak jartzearen gainean. Antzutasunaren aurkako tratamenduari dagokionez, desadostasunak azaldu dira tratamendu hori jasotzeko bete beharreko baldintzen inguruan.

Zerbitzu-kartaren edukia zehaztearen eta prestazioak egiteko moduaren esparru horreketan koka daitezke, orobat, transexualen behar terapeutikoen eta sexua esleitzeko kirurgiaren arloan burututako jarduerak.

Sortzetiko malformazioak nozitzen dituzten pertsonen ortodontziako tratamendua lortzea ere sarritan izaten da kexa egiteko arrazoia.

\* \* \*

Etxebizitza duina eskuratzeko zailtasun objektiboa da euskal herritar ugariaren arazorik garrantzitsuenetako bat. Botere publikoak etxebizitza babestuen sorrera bultzatzen ari dira, merkatu librean etxebizitza erosterik ez dutenei etxebizitza eskuratzeko aukera emateko beste neurri batzuekin batera. Etxebizitza-premia larria duten sektoreentzako neurriak hartzen ari dira, batik bat.

Azpimarratu beharreko berriak gertatu dira 2009. urtean, araei dagokienez.

Estatuan, azaroaren 23ko 19/2009 Legea onartu da (Alokairua Sustatzeko eta Alokairu Prozedura Arintzeko Neurriei eta Eraikinen Energia Eraginkortasunari buruzko Legea); EAEn, berriz, martxoaren 10eko 61/2009 Dekretua onartu da, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatzen eta bultzatzen duen dekretua aldatzekoa.

Bestalde, udalen artean, EAeko udal askok udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzak eman dituzte eta, horren ondorioz, gehitu egin da "etxebizitza babestuak" kalifikazio iraunkorra duten etxebizitzaren parke publikoa.



Etxebizitzaren premia frogatzeari dagokionez, etxebizitza babestuen esleipendun batzuek etxebizitzaz aldatzeko beharra agertu zuten, bizikidetzta-unitateko kideak gehitu zirelako. Kexa horiek agerian utzi dute araudian ez daudela behar bezala araututa “babes ofizialeko etxebizitzen parkearen barruko ibilbideak” deritzenak. Ararteko erakundeak honako hau gomendatu zien euskal administrazio publikoei *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn txosten berezian: har zitzatela “beharrezko neurriak (...) etxebizitza babestuen parkea kudeatzean familia-unitatearen egitura aldakorra aintzat har” zedin.*

Babes ofizialetako etxebizitzetan, oraindik arazoak daude eraikuntzako akatsak direla eta. Eskumena duten administrazioek azkar eta eraginkortasunez erantzun behar diete eraikuntza-akatsak konpontzeko eskaerei, etxebizitza babestuak edo alokairuko programa publikoen barruko etxebizitzak badira. Izan ere, etxebizitza duina eta egokia izateko eskubideak lotura estu-estua du etxebizitza horiek gutxieneko bizigarritasun eta kalitate baldintzak betetzearekin.

Jaso diren kexetako askok zerikusia dute babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozesuetatik bazter geratzearekin, edo aurretik onartuta zeuden etxebizitza esleipenak baliogabetzearekin, lege ezarritako eskakizunen bat ez betetzeagatik. Halakoetan, administrazioak zuzen jokatu ohi du, eta erabat oinarritzen da etxebizitza babestuak esleitzeko prozedurak arautzen dituen araudian.

Kezkagarria da laguntza berezia behar duten talde batzuek etxebizitza lortzeari dagokionez bizi duten egoera, esate baterako, ezintasun fisiko edo psikikoa dutenek edo indarkeria sexistaren biktima diren emakumeek.

\* \* \*

Arartekoak bere eskumenak erabili behar ditu, betidanik egin duen moduan, demokrazia aurreratu edo goi mailako ororen helburu izan beharko lukeen nahia lortzeko: alegia, tortura eta tratu txarrak prebenitzearen arloan, berme-sistema sendoa ezartzea, hain sendoa ezen ezinezko egingo baitu jarduera gaitzesgarri hori – baita tratu txar psikologikoa ere – burutzea.

2004ko abenduaren 21ean egindako adierazpenean, Arartekoak arlo horretan modu eraginkorragoan jokatzeko hartu beharreko neurriak azaldu zituen. Beste proposamen batzuen artean, azpimarratu genuen poliziaren jarduna etengabe ikuskatzeko prebentzio-lan sakona egin behar dela. Helburua polizi kidegoek torturarik edo tratu txarrak ez ematea da eta, horrelakorik jazotzen denean, bidegabeko jarduera horiek ezagutu eta zigortzea posible izatea.



Jakina denez, tortura ekiditeko neurrien artean, Ararteko erakundeak hauxe gomendatu zion Herrizaingo Sailari 1999an: ziegen eremuko korridoreetan kamerak jarri eta haien bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol-sistema ipin zezala, atxilotuen eskubideak bermatzeko neurri gisa.

2006. urtean Herrizaingo Sailak Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko atxiloteta-zentroetan bideo-grabaketen sistema ezarri zuenetik, eta deklarazioak hartzen diren lekuetan ere jarri zuenetik, erakunde honek ertzain-etxeetara hainbat ikustaldi egin ditu horien funtzionamendua ikuskatzeko.

Ertzain-etxeetara egindako bisitaldi horietan, bideo grabazioko sistemak instalatuta daudela ikusi dugu. Hala ere, aditzera eman behar da grabazioei dagokienez oraindik ez direla bete erakunde honek eskubideak bermatzeko asmoz proposatu zituen neurrietako batzuk.

2006ko txostenean zenbait zehaztasun egin ziren grabazioen arduradun bat jartzeko eskakizunari buruz, grabatutakoa sistematikoki berrikustez, grabatutakoa gordetzeko epeaz eta grabazioen erregistro bat sortzeaz; eta txosten horretara jo behar dugu berriro.

Udaltzaingo batzuen bulegoetan bideograbaketa-sistemak jartzen ari direla egiaztatzen ari gara. Pozik gaude halako prebentzio-neurriak udaletan ere ezartzen ari direlako, baina Ertzaintzari proposatu dizkiogun berme-neurriak hartu beharko dituztela uste dugu. Funtsean, neurriok dira:

- Grabazioen arduraduna atxilotetak egiten dituzten eta atxilotuak zaintzen dituzten unitateetako ez izatea.
- Grabaturiko materiala gordeko dela bermatzea, sor litezkeen administrazio-edo zigor-erantzukizunen preskripzioaren gehienezko muga iritsi arte, gutxienez.
- Egindako grabazioak agiri bidez egiaztatuko dituen erregistroa edukitzea.

Tortura eta tratu txarrak prebenitzeari buruz Nazio Batuek egin zuten aukerako Protokoloa sinatu zuen Espainiak, eta gobernuak erabaki du Espainiako Herriaren Defendatzailea izango dela prebentziorako mekanismo nazionala. Arartekoak Espainiako defentsa-erakundearekin sina dezakeen lankidetzaz hitzarmenaren babesean har ditzakeen eginkizunak alde batera utzita, agerikoa da protokolo hori ezartzeak babesa edo laguntza eskatzen digula gai honetan betekizunen bat dugun erakunde guztioi. Horregatik, Arartekoak gomendio orokor bat egingo du datozen hilabeteetan, eta bertan proposamen zehatzak egingo ditu orain indarrean dagoen berme-sistema hobetzeko.

\* \* \* \*



Arartekoak zenbait talde identifikatuta dauzka, bere ustez, politika publikoen premia handia dutelako, beraien eskubideak baliatzean erabateko berdintasuna berma dadin, beraien duintasuna behar bezala zaindu dadin eta egiturazko edo gizarte-arauek sortutako ahultasun-elementuei aurre egin dakien. Talde horien gainean garrantzitsuak iruditzen zaizkigun alderdi batzuk nabarmenduko ditugu jarraian.

### 1. Arreta berezia emakumeen berdintasunari eta osotasun fisikoari

Gure txostenean berriro egiaztatu denez, sexuagatiko berdintasunaren printzipioa formalki eta oro har onartuta dagoen arren, errealitatean desberdintasun materiala nagusitzen da oraindik ere.

Arartekoak hiru ardatz lantzen ditu arlo honetan: indarkeria sexista desagerraraztea, sexuagatiko bereizkeria kentzea eta gizarteko arlo guztietan benetako berdintasun eraginkorra lortzea.

Burutu ditugun jardueren argitan, hauxe egiaztatu dugu: koordinazio handiagoa behar da emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko asmoz lanean ari diren eragileen artean; argitu egin behar dira emakume biktimentzako aurreikusita dauden prestazioak; eta famili barruan senarra edo bikotekidea ez den norbaiten indarkeria pairatzen duten pertsoneri ere eman behar zaizkie prestazio batzuk. Hori dena adierazi diogu Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza berriari.

Jasotako kexei buruz, jarduera gehientsuenak gai hauekin lotuta egon dira: babestutako etxebizitza lortzeko aukera izatea – izan ere, Eusko Jaurlaritzaren irizpidea gehiegi lotzen zaio legean hitzez hitz adierazitakoari –; norbait genero-indarkeriaren biktima dela frogatzeko moduak (batzuetan, intimitate eskubidea etengabe urratzen dute); jagoletza eta zaintza arazoekin lotutako kasuak.

Arartekoak ikuskatu egin behar ditu berdintasunerako eta sexuagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubideei kalte egin diezaieketen administrazio-jarduerak. Arlo horretan, atsekabez adierazi behar dugu berriro bereizkeriazko gertakariak jazo direla jolas eta jai jardueretan. Adibidez, Puentelarrá-Lantarónen, elkarte gastronomiko batek ez zituen emakumeak onartzen, eta hango Administrazio Batzordeak gure eskaera bete zuen; edo Laudion emakumeak San Roque Kofradiatik kanpo utzi zituzten: han udalak Arartekoaren gomendioak bete dituen arren, bereizkeriazko egoera oraindik ez da bukatu.





Osakidetzak ere neurriak hartu ditu bere azterketetan, haurrari bularra ematen dioten edo haurdun dauden emakumeei laguntzeko.

Benetako berdintasun eraginkorra argi eta garbi ikusten da lana, norberaren bizitza eta familia bateragarri egitean, eskubide hori ez baita beti betetzen, eta arrazoi horregatik kexak egiten dizkiote Arartekoari. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak gure gomendioak bete ditu gai hauetan: Merkataritza Banaketaren Behatokiaren organo, batzorde eta lantaldeen osaeran ordezkariak orekatua egon dadila; edo lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen 118/2007 Dekretuari dagozkion hainbat arazotan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak hitzeman du berdindu egingo dituela lanaldia murrizteko laguntzen zenbatekoak, gizonentzat nahiz emakumeentzat, bada, gaur egungo araudian, argiro gizonen aldekoak dira; lanaldiaren murrizketa bi gurasoen artean banatzeko irizpideak alda ditzala; adingabeek laguntzak jasotzeko izan behar duten adina handitu dezala; edo adingabeen zaintzaile gisa familiako norbait kontratatzeko aukera onar dezala.

Emakumeen eskubideei buruzko arloaren bitartez, Arartekoak beste lan garrantzitsu bat egiten du: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea betetzeari dagokiona. Arlo horretan, Emakundek ematen digun informazioa daukagu, eta eskerrak ematen dizkiogu bere laguntzagatik.

Ilido horretan, gai askoren gaineko jarraipen eta kontrol-lana egin da: genero-inpaktuaren ebaluazioa Eusko Jaurlaritzaren araudian; Jaurlaritzaren sailetan berdintasunerako programak lantzeko teknikaria sartzea; Publizitate Batzordean oraindik egiteke dagoen kode etikoa egitea; edo euskal herri-administrazioek berdintasunerako planak eta programak sustatzen egindako aurrerapenak. Gai horren gainean, adierazi behar dugu 152 udalerrik oraindik ez dutela horrelako planik, baina plana baduten 99 udalerririk Euskadiko biztanleriaren %85 dira.

Laburbilduz, aurrerapenak egiten ari badira ere, oraindik bide luzea egin behar da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

## 2. Adinekoak

Pertsona edadetuak gero eta gehiago dira, Euskadiko biztanleetatik %20, eta, horren ondorioz, botere publikoek ezinbestean erantzun behar diote errealitate demografiko horri eta arreta bereziaren premia duen talde horren beharrei. Adinekoek gizarteari lagunduko badiote, beraien partaidetza erraztuko duten eta merezitako protagonismoa emango dieten politikak garatu behar dira.



Ilido horretatik, zenbait ekimen gauzaten ari dira: esaterako, Eusko Jaurlaritza Adinekoek Parte Hartzeko Osoko Plana egiten ari da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Adinekoen Behatokia sortu da (Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailera atxikitakoa), edo Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu du: horren bitartez, Eusko Jaurlaritzari eskatu dio adinekoen beharrei eta eskaerei buruzko azterlana egin dezala.

2009. urtean, Arartekoak batik bat gai hauetan jardun du:

- a) Adinekoen eskubideei eta tratu txarra prebenitzeari buruzko azterlan bat argitaratu da, Arartekoak emandako beka baten ondorioz; bertan, zenbait irizpide ematen dira tratu zehatz bat egokia den ala ez baloratzeko, eta tratu txarrak hautemateko eta arrisku-faktoreak identifikatzeko tresnak ere ematen dira.
  - b) Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Besteren Beharra duten Pertsonak Zaintzeko Legearen inpaktua aztertu da. Azterketa hori lege horren ezarpenari buruz datozen hilabeteetan argitaratuko den txosten berezian sartuko da.
  - c) Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak zenbait jarduera burutu ditu arestian aipatutako legea Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen hedadurarekin bateragarri egiteko. Jarduera horien bilakaera aztertu dugu.
  - d) Adinekoentzako arreta soziosanitarioaren bilakaera aztertu da (Arartekoak 2008an gai horretaz argitaratu zuen txosten bereziaren ondorioz).
  - e) Esku hartu dugu adinekoen egoitza batzuetako grebek sortutako arazoengatik azaldu dizkiguten kexen ondorioz. Egoitza hauek ziren: Ariznabarra egoitza, Gasteizen; Aldakonea, Donostian; eta Andoain, Ordizia eta Villabonako udal egoitzak eta Eibarko foru egoitza.  
Horietan guztietan gatazka kolektiboak sortu dira eta, gatazken ondorioz, grebak egin dituzte zentro horiek kudeatzen dituzten enpresa pribatuek kontrataturiko langileek, zentro horiek bere ardurapean dituzten administrazioetako lan-kategoriekin homologazioa eskatzeko. Arartekoak bere kezka agertu du eman dituen ebazpenetan, izan ere, arazo horrek oso egoera ahulean dauden pertsonengan du eragina; eta adierazi du jokoan dauden eskubideen arteko oreka lortu behar dela eta zentzuzko konponbideak bilatu behar direla, gogoan izanda sistema horrek erantzukizun publikokoa izaten jarraitu behar duela.
3. Arreta berezia adingabeei. Beste behin ere nabarmendu behar dugu adingabeak eskubideak dituztela –eta, jakina, baita betebeharrak ere, hauek haien ezinbesteko osagarriak direlako–. Baina, gainera, adingabeek, beren ezaugarriengatik, biztanle-sektore ahul-ahula osatzen dute eta berariazko eskubide batzuk bermatu behar zaizkie. Horrexegatik jotzen du Arartekoak arreta berezia eta lehentasunezkoa behar duen taldeetat.



2009an 20 urte bete ditu ez Arartekoak bakarrik, baita adingabeak babesteko nazioarteko tresna nagusiak ere: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak. 1989an onartu zuen NBEk eta oraindik ere balio handiko tresna da hurrekin eta haurrentzat egindako lanean.

Arartekoak jarduera ugari burutu ditu talde honen inguruan:

- I. Sektore ahul-ahulen arazoak eta horien bilakaera aztertu da. Besteak beste, nabarmentzekoak dira: familiaren babesik ez duten adin txikikoak (horien egoera aztertzeko, haurrak babesteko udal zerbitzu batzuk aztertu dira, 40 hain zuzen); bakarrik dauden adingabe atzerritarrak (gero bereziki aipatuko ditut horiek); adingabe lege-hausleak (gehitu egin dira adingabeentzako neurri judizialak, batez ere barneratze-neurriak, eta barneratze-aldiak luzeagoak dira orain; sasoiko langileen seme-alabak; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak (besteak beste, ezintasunen bat duten ikasleen kopuruak gora egin du, eta toxikoak kontsumitzen dituzten adingabeen beharrak ere hor daude); buru-osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeak (arlotan orain azaleratzen ari da); eskolako tratatu txarrak edo jazarpena (40 kasu izan dira 2009an) eta familia elkartzeko guneak.
- II. Babesik gabe edo arrisku larrian dauden adingabeei laguntzeko zentroak eta harrera-baliabideak ikustera joan gara.
- III. Adin txikikoen gaineko txosten berriak egin dira. Bereziki garrantzitsua da balioak transmititzeari buruz iaz aurkeztu zen txostena. Horri esker jakin daiteke 8 eta 16 urte bitarteko hurrekin eta nerabeekin zer deritzeten balio jakin batzuei: desberdintasuna onartu eta errespetatzeari, emakumeen eta gizonen berdintasunari, indarkeria gaitzesteari, ingurumena zaintzeari, eta abarri.
- IV. Kexak eta ofiziozko jarduerak ebatzi dira, batik bat hezkuntza, babesa, gazte-justizia eta osasun arloetan.
- V. Sektore horretan diharduten gizarte eragile, elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritu gara, eta adingabeen beste defentsa-erakunde batzuekin ere bai.
- VI. Haur eta nerabeen eskubideetan oinarritutako kultura hedatu dugu. Horretarako, Hitzarmenari buruzko material didaktikoak egin dira eta EHUren Udako Ikastaroetan jardunaldiak antolatu dira, Euskadin haurrak babesteko dugun sistema aztertzeko.
- VII. Jendaurrean gure iritzia azaldu dugu gizarteko hainbat arazo eta erreakziori buruz, hala nola portaera-arazoak dituzten nerabeentzako baliabideez.



Babesik gabeko nerabeen sektorean, berariazko ezaugarriak eta beharrak dituzte **bakarrik dauden adingabe atzerritarrek**. Horregatik, 2009an, etengabe arduratu gara adingabe horien arazoez, hainbat zentzutan gainera:

- a) Zentroen egoera, batez ere Debako Oilur zentroarena eta Gasteizko Bideberri eta Carlos Abaitua zentroena. Hori zehatz-mehatz azaldu dugu Arartekoak eman dituen ebazpenetan.
- b) Adingabeen beren egoera administratiboa: adina zehazteko arazoak, administrazio eskudunek tutoretza beren gain ez hartzea, egoitzabaimenaren eskaerarik ez egitea, pasaporteak inpugnatzea, e.a. Egoera horren ondorioz, adingabeen eskubideak urratu dira eta ezin onartuzko babesgabezia-egoerak eragin dituzte erakunde batzuek.

Gaia aldatuta, azpimarratu nahi dut familia barruko indarkeriak gora egin duela, baita gurasoei eraso egiten dieten neska nerabeen kopuruak ere.

Bukatzeko, laburpen moduan, Arartekoan azken urteotan ikusten ari garen egoera gatazkatsuenak nabarmendu nahi ditut:

- a) Bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazoa, lehen aipatutakoa.
- b) Eskolako jazarpen-egoerak, *ciberbullying* kasuak ugaritu direla barne hartuta.
- c) Haur eta nerabeen gaixotasun mentalek eragindako beharrak. Osasun-sistemak emandako erantzuna ez da nahikoa andeatze mental edo drogamendekotasun egoeretan edo adingabeek (nerabeek batik bat) portaera-arazo larriak dituztenean.

Azkenik, gogoratu nahi dizuet Arartekoak bere lana betetzeko erabili duen egiturazko aldaketa nagusietako bat Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren sorrera izan dela, Arartekoaren Araudia berriztatu ondoren, hasieran esan dugun bezala. Bulego horretan burutzen da talde hauei dagozkien jarduera eta ekimen guztiak eta aurtengo urteari buruzko txostenean arreta berezia eskaini beharko diogu bulego horren berariazkotasunari.

4. Bestalde, ezintasunen bat duten pertsonen eguneroko bizitzan oraindik ere zailtasun handiak izaten dituzte besteak bezalaxe bizitzeko, hirian irisgarritasun-arazoak eta hezkuntzan oztopoak aurkitzen dituztelako, baita laguntzak eta gizarte-prestazioak lortzeko orduan ere.

2009ko maiatzean indarrean jarri zen Ezinduen Eskubideen Hitzarmena. Horrek aldaketa handia ekarri du ezintasuna tratatzean, bada eredu sozial batera igaro gara, gizakiaren aniztasunaren beste adierazpen baten moduan, eta ezintasuna



giza eskubideen eremuan kokatu da. Horrela, Arartekoari legezko tresna gehiago eman zaizkio irisgarritasun unibertsala lortzeko.

Dena den, aurrerapenak oraindik ez dira nahikoak, sektore horretako elkarteek adierazi dutenez: elkarteek on deritzote Mendetasunaren Legean xedatutako prestazio ekonomikoari, baina kritikatzten dute legearen oso interpretazio murritzaila egiten dela, lanerako eta hezkuntzarako laguntza pertsonalari oso lotua, baina ez, ordea, eguneroko bizitzako edo aisialdiko gainontzeko jarduerari.

Ikastetxeetan sartzeko arazoengatik ere kexak jaso ditugu berriro. Espero dugu arazo horiek Ikastetxeen Azpiegiturak Hobetzeko Plan Bereziarekin (2011-2012) konpontzea. Era berean, garraio publikoetan sartzeko arazoak azaldu dira: horregatik, aurten txosten berezi bat egitea erabaki dugu Euskadiko garraio publikoaren irisgarritasunaz (dagoeneko prestatzen ari gara). Udal batzuek ez dute salbuespenik ezarri trakzio mekanikoko ibilgailuen zenbatekoan.

2009. urtean barrena, hainbat udal arrapala edo eskailera mekaniko ugari jartzen ari zirela eta, gomendio orokor bat egin behar izan dugu, haien ordeztuak jartzea lehenetsi behar dela gogoraraziz, arrapala edo eskailera mekanikoek ez baitute bermatzen mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna, eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioaren aurkakoak baitira.

Orobat, agerian jarri behar dugu gorrek, entzumen urrikoek edo gor-itsuek etengabe oztupoak aurkitzen dituztela hainbat arlotan, batez ere osasun arloan. Badakigu osasun arloko arduradunak oztupoak aurre egiteko aukerak aztertzen ari direla; beraz, datorren urteko gure azterketan, egiazko oztupo horiek kentzeko aurrerapenak egin direla esan ahal izatea espero dugu.

##### 5. Atzerritarrek dira eskubide-urratze gehien jasan ditzaketen taldeetako bat

2009an pertsona horiei dagozkien bi lege onartu dira: abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa (2000ko legea aldatu du horrek) eta urriaren 30eko 12/2009 Lege Organikoa, Asiloari buruzkoa.

Dakigunez, Estatuak du legegintzako eskumena, baina atzerritarren egoera humanitarioa eta immigrazio-politikak egiaz lurraldeetako agintarien erantzukizunak dira. Etorkinek gizarteratzeko aurkitzen duten zailtasun nagusietako bat da egoitza-baimena eta lanerako baimena lortzea, baita jatorrizko herrialdean diruzko baliabiderik ez dutela egiaztatzea ere, diru-



sarrerak bermatzeko errenta jaso ahal izateko. Horren ondorioz, Arartekoak esku hartu behar izan du.

Laguntzeko gizarte-sarerik ez izatearen eta behar ekonomikoak haztearen ondorioz, ugaritu egin dira laguntza ekonomikoen eskaerak (lurralde batetik bestera elkarren kontrako konponbideak ematen ari direla ikusi dugu) eta, era berean, asentamenduak sortu dira eta txabolak eraiki dira, batik bat Bilbon. Zenbaitetan, toki horietatik alde eginarazi diete, adibidez, Zorrotzaurren, jarduera desegokia burutuz eta inolako planifikaziorik gabe, eta erakunde honek esku hartu behar izan du. Horien gainean, berme-sistema gisa proposatzen dugu jarduera-protokoloa egin dadila eta aurrez planifika dadila ez soilik poliziaren jarduera, baizik eta baita gizartearen jarduera ere.

Azkenik, adierazi behar dugu zenbait kasutan atzerritar batzuk poliziarengandik jasotako tratuaz kexu direla, atzerritar izateagatik diskriminatzen dituztela iruditzen zaielako.

Etorkinek beste arazo bat ere badute: beren eskubideak defendatzeko eta administrazioarekin harremanak izateko hizkuntza-zailtasunak dituzte; horregatik, Eusko Jaurlaritzari gomendio orokor bat egin diogu: interprete-sare baten sorrera susta dezala, Euskadiko hizkuntza ofizialak ez dakizkiten pertsonen kasuetan, euskal administrazioei zerbitzuak egiteko.

6. Ijito herria oso talde estigmatizatua izan da historian zehar, eta zerbitzuak, baliabideak eta gizarte-aukerak jasotzeko aukera gutxiago izan ditu

Horregatik, Arartekoak bere jardueretan sarritan adierazten du bete egin behar direla Euskal Herrian Ijito Herriaren sustapen integralerako eta partaidetzarako II. Planean erakundeek beren gain hartutako konpromisoak, izan ere, ijitoen biztanleriaren zati handi bat, oraindik ere, gizarte-bazterketa jasateko arriskurik handiena duten taldeetako bat da. Horrela, erroldan izena emateko eta etxebizitza lortzeko dituzten arazoengatik esku hartu behar izan dugu. Egiaz, bereizkeria jasaten dute.

Arartekoaren jardunari esker, udal batzuek gure gomendioak onartu dituzte eta kexagileak erroldan sartu dituzte.

Zenbait auzo berritzeko prozesuetan ere esku hartu behar izan dugu esaterako, Sestao edo Abanto Zierbenakoetan (Santa Juliana auzoa), bada prozesu horiek ijitoen ostatu-baldintzak hobetzeko aukera bat dira. Orobat, lanean jarraitzen dugu ijito familia bat La Arboledan kokatzeko, horrek auzotarren kontrako jarrera gogorra sortu zuen eta.



Nire ustez, erakundeek seriozki jardun behar dute gizartea informatzen eta sentibilizatzen ijitoen kultura errespetatzeari buruz eta haiek beren eskubideak berdintasunean baliatzeko dituzten zailtasunei buruz.

## 7. Gizartean larriki baztertuta edo pobrezian bizi direnak

Lehenik eta behin, nabarmendu nahi dut gure erkidegoan pertsona askok zailtasunak dituztela beren eskubideak baliatzeko eta oinarrizko beharrei (adibidez, etxebizitza eta janaria) aurre egiteko. Zailtasun horiek krisialdi ekonomikorik ez zegoenean ere baziren. Oraingo krisialdia larriki eragiten ari zaie sektorerik ahulenei eta, horregatik, garrantzi handiagoa hartzen dute gizartean egoerarik txarrean bizi diren pertsonen laguntzeko programek.

Egiaztatu da egunetik egunera gehiago direla larriki baztertutako pertsonak, eta haien egoera pertsonalak okerrera egin duela; horregatik, talde horrekin berriaz esku hartu behar izan da. Erakunde honek lehentasunezko arreta eskaintzen dio talde horren egoeraren bilakaera aztertzei.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legeak arau bidezko garapenik ez izateak zalantzak sortu ditu eta, horrela, interpretazio desberdinak egin dituzte hiru foru aldundiek, bai Gasteizko Udalak ere, laguntza jasotzeko baldintzak baloratzeko orduan. Hori dela eta, esku hartu behar izan dugu, nagusiki ostatu independenterik ez zuten edo erroldaratu gabe zeuden pertsonen kasuetan.

2009. urtean, pertsona horiekin lotutako bi txosten bereziren jarraipen-lana egin dugu: hain zuzen, etxerik gabeko pertsonen eta gizarte ekintza sektoreko lan-baldintzei buruzko txostenena.

Aurten, gainera, etxerik gabeko pertsonentzako baliabide bat jartzei auzokideek kontra egin diotela eta, esku hartu behar izan dugu. Talde horren estigmatizazioa ekiditeko, baliabideen kokapenak planifika eta zuzen ditzatela gomendatu diegu administrazioei.

Arreta soziosanitarioa da etxerik gabeko pertsonen pairatzen duten arazorik garrantzitsuenetako bat. Gai horren gaineko txostenean landu genuen arazo hori, eta han egindako gomendioak oraindik indarrean daudenez gero, bete daitezela eskatzen jarraitzen dugu.

Pertsona horiek arreta osoa eta jarraitua behar dute gizarteratzea errazteko. Horretarako, herri-erakunde guztiek elkarrekin lan egin behar dute gizarteratze horretan. Bestela, gehituz joango dira gizarte-babesik gabeko egoerak, eta gero eta larriagoak izango dira horien ondorioak, ez bakarrik egoera hori pairatzen dutenentzat, baizik eta baita gizarte osoarentzat ere.



8. Talde terroristen biktimei dagokienez, Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta izenburuko txosten berezia aipatu behar dugu. Txosten hori argitaratu eta legebiltzar honi aurkeztu genion, eta guztiok ezagutzen duzue. Bertan, euskal administrazio eta erakundeen jardura eta politika publikoen argazkia egin da, Terrorismoaren Biktimen Aitortza eta Erreparazioa Egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeko xedapenak betetzeari dagokionez, eta zehazki aztertzen da ETArek heriotz mehatxuarean bizi diren hamarnaka mila pertsonaren errealitate lazarria. Txosten horri esker, Arartekoak, txosten berezi guztiarekin egiten duen bezalaxe, jardura eta politika publiko horien aldizkako jarraipena egin ahal izango du. Talde terroristen guztien biktimei guztiek gure erakundearen erantzun egokia eta bidezkoa izan beharko dute, denek baitituzte duintasunerako, ordain morala jasotzeko, justiziarako, egitarako, memoriarako eta parte hartzeko eskubideak.
9. Joera homosexualen pertsonen –gay eta lesbianak– eta identitate transexualen eta transgeneroen buruz, politika publikoak behar dituzte, pentsamendutik eta gizarte-portaeretatik desagerrarazteko oraindik ere desberdintasuna eta estigmatizazio, irain, eskola-jazarpen eta erasoak sortzen dituzten inguruabarrak. Joan den urtean transexualen eta transgeneroen buruzko txosten berezi bat egin genuen, ia ez baita ezagutzen horien benetako egoera, eta oso talde ahula baita.

Transexualen dagokienez, esan behar dugu 2009. urtean hainbat kexa bideratu ditugula sexua berresleitzeko kirurgia-ebakuntza dela eta (Osakidetza ebakuntza hori egiten hasi da, azkenean). Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak EAetik kanpo kirurgia-ebakuntzak egiteko laguntzak kendu dituelako ere jaso ditugu kexak, edo sexu berresleitzeko prozesua bukatu ez duten pertsonentzat intimitaterik ez dagoelako Donostiako kirol instalazioetako dutxetan eta aldageletan.

Sexu bereko pertsonen osatutako bikoteei dagokienez, agerian jarri da administrazioen jarduran oraindik ez direla erabat normalizatu agiri eta inprimakien ereduak, bada gurasoak heterosexuak direlako usteari eusten zaio hezkuntza, osasun eta justiziarik dagozkion arlo batzuetan eta ez dago bikote homosexualentzako inprimakirik. Deigarria da sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak egiteko formulariorik edo sendotutako jarduerarik ez egotea Erregistro Zibilean.





Azkenik, kezkatuta gaude oraindik ere gaur-gaurkoak izaten jarraitzen dutelako hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko 2008ko foroan nerabe homosexual eta transexualen egoeraz atera genituen ondorioek. Beraz, botere publikoek modu eraginkorragoan esku hartu beharra daukate, adin txikiko horiei askatasuna, berdintasuna eta segurtasuna bermatzeko.

#### 10. Askatasunik gabeko pertsonen eta atxilotuen ere kezka sortzen diote erakunde honi

Askatasuna kentzeak gizartearengandik aldentzea dakar, eta Konstituzioak askatasuna kentzeko zigorrek gizarteratzera bideratuta egon daitezela agintzen duen arren, egiaz, askatasunik eza pairatzen dutenek zailtasunak izaten dituzte osasun, hezkuntza, ongizate eta lan-sustapen zerbitzuen sare normalizatuaz baliatzeko.

Arlo horretan esku hartzeko aukera mugatua badugu ere, Euskadiri ez baitzaio espetxeen kudeaketa eskualdatu, gure ustez behar-beharrezkoa da espetxeratuaren eskubideen alde lan egitea, eta euskal administrazioei inplikaziorik handiena eskatzea, beraiek kudeatzen dituzten zerbitzuen bitartez, osasun fisiko eta mentalari, toxikomaniei, hezkuntzari edo lanari dagozkion alderdietan, baita komunitatearen mesederako lanen potentzialtasun osoa garatzeari dagozkion alderdietan ere.

Arartekoak etengabeko harremana du presoak gizarteratzeko lan egiten duten gizarte-ekimeneko erakundeekin, eta zuzeneko zenbait gestio egiten ditu, arrazoi humanitarioak direla medio, lekualdaketeekin edo zigorrek lotutako gaietan, gizarteratzearen edo famili deserrotzearen prozesuekin zerikusia dutenean.

Orobat, espetxeetako administrazioarekin esku hartu dugu, delitu zehatz batzuegatik zigortutako pertsonen kasuan, arakatu eta miatzeko irizpide berriak erabiltzeari buruz, eta adierazi diogu behar bezala bete behar direla duintasunerako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubide oinarritzakoak, ez bakarrik presoena, baizik eta baita haien senide eta lagunenak ere.

#### 11. Gaixo kroniko gehienek, hasiera batean, tratamendu sendagarriez bestelako tratamendu edo zainketetan oinarritutako arreta eskatzen dute

**Gaixo kronikoen** arazoetako bat errehabilitazioa izaten da, izan ere, gaixo kronikoen ustez, sistema publikoak eskaintzen duen maila ez da nahikoa. Beraien autonomia eta zainketa sustatuz, bizi-kalitatea bermatuko dien ikuspegi soziosanitarioa eskatzen dute.



Arartekoa pertsona horien eskubideak sustatzeko lanean aritu da 2009an. Horretarako, gaixo kronikoei emandako arreta soziosanitarioaren bilakaera aztertu du; Osakidetzako Osasun Mentalaren sarearen egoera zertan den aztertu du; eta txosten berezi bat egin du Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia eta Zaintza Sustatzeko Legea ezartzeari buruz. Txosten hori datozen hilabeteetan emango da argitara.

Aldi berean, gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonak errehabilitatzeari buruzko keak bideratu ditugu. Horietan, oraingoa baino tratamendu biziagoa eta espezializazio handiagoa eskatu da, baina Osakidetzak uste du sistema publikoak ezin duela tratamendu hori ordaindu.

EAEko osasun mentalaren arloko estrategia dela eta, aztertu dugu Euskadiko Osasun Mentalerako Kontseilu Aholku-emaileak, datozen urteetarako, 2009an egin zuen proposamena.

\* \* \* \*

Interesgarriak iruditzen zaizkigun beste gai asko ere pozik landuko nituen zuen aurrean, baina horiek txostenean aurkituko dituzue.

Adierazi dizuedanez, txosten honek beste irakurketa batzuk egiteko aukera ematen du, eta aipaturikoak bezain garrantzitsuak diren beste gai batzuk nabarmendu zitezkeen. Hemen haiek ez azaltzeak ez du esan nahi, ez horixe, aintzat hartzen ez ditugunik, baizik eta azalpen honek iraupen mugatua duela eta denbora-muga hori errespetatu behar dudala.

Benetan eskertzen dut Ararteko erakundeko langileek egiten duten lana. Haien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango litzateke hemen islatu diren jarduera guztiak egitea.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen arretagatik, eta legebiltzar ordezkari gisa laguntza eskatu nahi dizuet berriz, estatutuak eta legeak eman dizkidaten zereginak bete ahal izateko.

Eskerrik asko.